

txar au jazo ez daiten? Itxasoak eten barik erabili olatu ta ugoibeyakaz (mariekaz), ta ganera gaztu gezalaz, gatza usteldasunaren arerioa da-ta

5. Egutza (aizea, atmosferia) beaf-beafezkoa dogu biziteko; baña egutz ori estuagotuta ta gogofuagoa ba'lego, ezin arnasarik aftu al izango genduke, ta itxaso baruan bezela ito egingo giñatekez egutz gogofu ofen olatuetan. Asko me-yago ta bakanduago ba'lego bariz, ez leulkake gure arnasarako oin daukan leguntasun eta gōzotasuna: goi-goyetan jazoten dan lez, egutzaren metasun ofek ez gindukez arnasarik aftzen itxiko.

Dan besteko me ta garbia ezpa-litz egutz ori, ta odayak be asko geyago ta estuago ba'legoz, argirik ez genduke izango, ilunetan beti egon beafko giñatekez, argi-izpiak nundik igaro ez leukielako izango.

Esan doguzan gauza gusti onetatik, eta landara edo barazkiak eta abereak aztertuten asiko ba-giñateke esango gendukezenetatik; zer ataraten da? Dan-danian agertzen dala argiro, ezin argiroago, *asmo ta elburu* bat: dan-dana dagola gizonarentzat eginda, gizadiaren bizitzarako.

Asmo ta elburu onek, ain zeaztasun andiz lortutako asmo ta elburu onek, nai ta nai ez, adimen andi bat eskatzen dau. Adimen andi ori, nai ta nai ez, Jaungoikoa da. Au bayeztuten ez dauna; ain zero lortutako asmo ta elburu ori berezkoa dala diñoana, *zoratura dago*, geiztotasunaz itxututa. Eta zoratura ta geiztotasunaz itxututa baita be, gugaz ain arduratsua dan Jaungoiko oferi eskerak emoteko ta Bera goraldukeko begiak goruntz jasoten ez dituan gizona.

Ureta



ZURI MIREN

Zuri Miren, Neskutz

*Aiatz ta garbia,
Jainko ta gizonen
Ama maitatia,
Donoki Bakaldun
Lorien Lorea,
Andera txit eder
Orbanik gabea,
Dematzut maiterik
Gaur biotz nerea,
Beti izan zaitian
Beronen Jabea.*

TENE.

